



2014KO URTARRILAREN 24KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hogeita lauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko urtarrilaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 84 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA BEDERATZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (89.580,54 €)takoa eta 2014 ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA BERROGEITA HAMA ZAZPI ZENTIMO (927,57 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 08-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2014ko urtarrilaren 9tik aurrera, laguntza pertsonalaren ekonomi prestazioa jasotzen hasi delako.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 13-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako laguntzaren zenbatekoa hilean 250 €tik 247,5 €ra aldatzea, ekainetik abendura eta mantenimendu gastuetarako laguntzaren zenbatekoa hilean 46,25 €tik 45,79 €ra aldatzea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %99a da.



2013ko Elkartasun Astebururako dirulaguntza.-

- 2013. urtean, urriaren 18 eta 19an, egin den Elkartasun Asteburua ekitaldiko gastuak ordaintzeko antolatzaileei 4.217,96 €ko dirulaguntza ematea.

Gizarte Zerbitzuetako Entitateei dirulaguntzak.-

- 2013. urteari dagokionez entitateei honako dirulaguntza hauek ematea:

- AZKI emakumeen taldea	270,00 €
- Rwanda taldea	291,00 €

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

- Beditarrak Fundazioari, aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzatik, 10.000 €ko zenbatekoa aurreratzea.
- Lazkao Txiki musika eskola S.L.ri, aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzatik, 8.000 €ko zenbatekoa aurreratzea.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN ERAIKINETAN BEROKUNTZAREN ETA UR BERO SANITARIOAREN INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO-ARI ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakin arazi du, eraikinetan berokuntzaren eta ur bero sanitarioaren instalazioak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko kontratazio espedienteari hasiera ematera dihoala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak eraikinetan berokuntzaren eta ur bero sanitarioaren instalazioak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste garik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

